



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

## **EHUko IKASLE KONTSEILUAK OHARTARAZI DU EGUNGO PREZIO PUBLIKOEN ETA BEKEN SISTEMAK EZ DIOLA IKASLERIAREN ERREALITATEARI ERANTZUTEN**

**Ia 1.500 ikaslek parte hartu dute EHUko Ikasle Kontseiluak bultzatutako parte-hartze prozesuaren lehen fasean. Behin-behineko emaitzek agerian uzten dute prezio publikoen politikak berrikusi eta beken sistema indartu behar direla.**

Puede leer la nota en castellano [aquí](#).

**Leioa, 2026ko maiatzaren 5a** – Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ikasle Kontseiluak Euskadiko unibertsitate-bekei eta prezio publikoei buruzko inkestaren behin-behineko emaitzak aurkeztu ditu, unibertsitate publikoan irisgarritasun ekonomikoari, iraupenari eta ikasleriaren baldintza materialei buruzko prozesu parte-hartzaile zabalago baten baitan.

Prozesu parte-hartzailea otsailaren 9tik martxoaren 4ra bitartean egindako inkesta batekin abiatu zen. Inkesta sare sozialen, kanal digitalen eta bide instituzionalen bidez zabaldu zen, ahalik eta ikasle gehienen parte-hartzea errazteko. Haren bidez, ikasleriaren egoera errearen lehen irudi bat jaso nahi izan da matrikularen prezioaren, hirugarren eta laugarren matrikulen, bekak eskatzeko eta jasotzeko baldintzen, eta unibertsitate-bizitzari lotutako zailtasun ekonomikoen inguruan.

Guztira, 1.481 ikaslek parte hartu dute, emaitza adierazgarriak lortzeko aurreikusitako gutxieneko lagin-tamaina nabarmen gainditzen duen kopurua. Kontseiluak azpimarratu du datu horiek lehen hurbilketa kuantitatibo sendoa direla, eta datozen hilabeteetan aurrez aurreko eztabaida, kontraste- eta proposamenak modu kolektiboan lantzeko espazioen bidez osatuko direla.

Behin-behineko emaitzek matrikularen prezioaren inguruko pertzepzio argiki kritikoa erakusten dute. Ia 10 ikasletik 8k uste dute matrikularen prezioa altua edo oso altua dela. Gainera, inkestatutako pertsonen % 25ek adierazi du noizbait hirugarren edo laugarren matrikula batean egon dela, eta egoera horrek ez dio soilik zailtasun akademikoari erantzuten, baizik eta osasun mentalarekin, lan egiteko behararekin edo erantzukizun pertsonal eta zaintza-erantzukizunekin lotutako faktoreei ere bai.

Inkestatutako pertsonen zati handi batek ikasketak eta lana bateratzen ditu, testuinguru ekonomiko ezberdin askotarikoetan bizi da eta, kasu askotan, unibertsitate publikoan ikasten duten pertsonen errealitate materiala behar bezala kontuan hartzen ez duen prezio publikoen sistema bati egin behar dio



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

aurre. Ikasle Kontseiluaren ustez, bereziki esanguratsua da datuek agerian uztea zailtasun ekonomikoak ez direla kontu isolatu edo bigarren mailako kontu bat, baizik eta ikasleriaren ibilbide akademikoa zuzenean baldintzatzen duen elementu bat.

Beken arloan ere, emaitzek balorazio nagusiki kritikoa erakusten dute. Ikasleriaren zati esanguratsu batek beka bat eskatzea pentsatu edo eskatu badu ere, behin-behineko txostenak beka eskatzeko eta jasotzeko oztopo garrantzitsuak identifikatzen ditu, bereziki baldintzak betetzearekin, prozeduraren konplexutasunarekin eta sistemaren inguruko ezjakintasunarekin lotuta. Era berean, ikasleen % 56k uste du beken sistemak premia batzuk estaltzen dituela, baina alderdi garrantzitsuak kanpoan uzten dituela. Bestalde, % 25ek zuzenean adierazi du sistemak ez dituela bere beharrak estaltzen.

Ikasleriak adierazitako lehentasunak argiak dira: ikastegi publikoetako ikasleentzako beken sistema orokorra indartzea eta lehenestea, laguntzetara sartzeko baldintza akademikoak malgutzea, matrikularen prezioa murriztea, bereziki hirugarren eta laugarren matrikuletan, eta ordainketa-epeak zabaltzea.

Ikasle Kontseiluaren ustez, emaitza horiek kontuan hartu behar ditu Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak, 2026-2027 ikasturterako EHuko prezio publikoak ezartzen dituen Agindua onartu aurretik, baita unibertsitate-beken politikak diseinatzerakoan ere. Unibertsitate publikoa ezin da eraiki ikasleriaren errealitate ekonomikoari bizkar emanda.

Iñigo Ugedo EHuko Ikasle Kontseiluko presidentearen hitzetan, *“datuek berresten dute ikasleriak aspalditik esaten duena: unibertsitate publikoan ikasteak ahalegin ekonomiko oso handia eskatzen die oraindik familia askori eta gazte askori. Ez da nahikoa prezioak izoztuta mantentzea, sistemak egoera zailagoak bizi dituzten pertsonak bereziki zigortzen jarraitzen badu”*.

Gainera, gogorarazi du prozesu parte-hartzailea ez dela inkesta honekin amaitzen. Irailean zehar, asanbladak eta ikasle-topaketak egingo dira EHuko hiru campusetan, behin-behineko emaitzak kontrastatzeko, zuzeneko esperientziak jasotzeko eta ikasleriatik bertatik proposamen zehatzak eraikitzeko. Saio horiek datuetan sakontzeko, zenbakietan beti agertzen ez diren arazoak identifikatzeko eta erakunde eskudunen aurrean jarrera komun bat indartzeko aukera emango dute.

Ikasle Kontseiluarentzat, prezio publikoei eta bekei buruzko eztabaida ezin da kontu tekniko edo aurrekontu-kontu batera mugatu. Sakonean politikoa den auzia da, unibertsitate publikora berdintasun-baldintzetan sartzeko, bertan irauteko eta aurrera egiteko eskubidearekin lotuta dagoena.



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzari eta EHUri eskatzen diegu elkarrizketa erreal bat ireki dezatela ikasleen ordezkartzarekin, prezio publikoen eta beken eredu justuago, irisgarriago eta ikasleriaren benetako beharretara egokituago baterantz aurrera egiteko.

P R E N T S A O H A R R A

## **EHUko Ikasle Kontseilua**



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

**Contacto:**

[ikasle.kontseilua@ehu.eus](mailto:ikasle.kontseilua@ehu.eus)

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

Linkedin: [www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua](http://www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua)

[www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua](http://www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua)

P R E N T S A O H A R R A